

B A N D O A:

GAIA: GIZARTE LANGILE BATEN KONTRATAZIOA

Antzuolako Udalak Gizarte langile bat kontratatuko du **irailaren 7tik abenduaren 5arte**.

Betekizunak

- 70 urtetik gorako herritarrei galdetegi bat egitea etxez etxe.
- Galdetegietako erantzunekin txostena prestatu.
- Herriko gizarte langilearekin batera galdetegiari buruzko antolaketa prestatu.

Lanpostu honetan interesaturik dauden pertsona guztiek, **uztailaren 3tik 17ko eguerdiko 14:00ak arte** (biak barne), LANBIDEN eman beharko dute izena.

Ezinbesteko baldintzak:

- Lan-kontratua egiterako egunean 18 urte beteta izatea eta derrigorrez erretiratzeko adina ez gainditzea.
- Funtzioak behar bezala betetzea eragotzi dezakeen gaixotasunik nahiz muga fisikorik edo psikikorik ez izatea.
- Inolako administrazio-publikoaren edo autonomia erkidegoetako konstituzio nahiz estatutu organoen zerbitzutik diziplina-espediente bidez baztertu gabe izatea eta funtzio publikoak betetzeko ezgaitua ez egotea.
- Euskal enplegu zerbitzuan langabetu gisa izena emanda egotea.
- Gizarte lanean gradua izatea.
- Euskara C1 edo baliokidea izatea.
- Informatika: word eta Excel menperatzea.
- Gida baimena eta autoa.
- Debagoiena edo Urola Garaia eskualdeetan bizitzea.

Baloratuko diren irizpideak:

- Lanpostuarekin zerikusia duten ikastaroak.
- Esperientzia

Antzuolan, 2026ko uztailaren 3an.

Alkateak

Iz.: Olatz Lezeta Urzelai,

Herriko Plaza, 8 - 20577 Antzuola (Gipuzkoa) / 943 76 62 46 / udala@antzuola.eus / antzuola.eus



EKS | CSV: SINA0043c9c7-8eea-4f0a-9b02-e2e1ac5eb233

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=01110>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=01110>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

GIZARTE LANGILEA BANDOA.pdf

CSV/EKS:

SINA0043c9c7-8eea-4f0a-9b02-e2e1ac5eb233